

**Jorge Sanzen** hitzaldia

Aguilar del Campoo udaletxearen Animatzaile Kulturala

**“HAUSNARKETA ESTRATEGIKOA KALEKO ARTEETAN; KREAZIORAKO,  
BANAKETARAKO ETA ERAKUKETARAKO BEHARRAK”**

Espazioak eta haren inguruneak kale arteetan duen garrantzia. Batzuetan, ez diogu garrantzirik ematen, “edozein lekuk balio du behar teknikoak betetzen badira”, baina gehienetan, ez dugu horretaz pentsatzen, eta ez gara saiatzen aukeratutako esparru horrek (eliza bateko horma, udal bateko balkoia, etab.) ikusleari eta artistari zer komunikatzen dion jakiten. Azkarregi joaten gara. Hori dela-eta, espazioaren alkimiaz egin nahi dut berba, alderdi fisikoa eta alderdi artistikoa nahasiz urrea lortzeko aukera emango digu prozesuaz. Eta horretarako, zenbait hausnarketa elkarbanatu nahi nituzke zuekin, ez alderdi artistiko eta teknikoaren ikuspegitik soilik, baizik eta hirigileek eta arkitektoek esparru publikoko arteari buruz duten ikuspegi garrantzitsutik ere. Kontuan izan behar da kaleko artistek esku hartzeko aukeratzeko duten esparrua arkitekturaren aldetik konponduta dagoela eta, beraz, artistek ikuskizuna egokitu behar dutela esparrura.

**ESPAZIOAREN ALKIMIA**

*Antzerkiaren eta alkimiaren printzipioen artean, esentzia antzekotasun misteriotsua dago.*

*Antzerkiak, alkimiak bezala, jatorrian eta lur azpian kontuan hartua,*

*arte guztienak diren zenbait oinarri ditu, eta, irudizko espiritua*

*menderatuz, menderatze fisikoan benetan urrea lortzeko*

*aukera ematen duen prozesukoaren antzeko*

*eraginkortasuna lortu nahi du.*

**ANTZERKI ALKIMIKOA, ANTONIN ARTAUD-ENA**

*“Kalea da artelan onak aurkezteko gizarte gunerik onena da...”*

*Hiri bateko gizarte kohesioa guneko publikoetan hasten da”.*

**Jean Vilar**

Antzerkiaren eta dantzaren jatorriak komunitate guneen barruko erritualean daude; komunitate gune horiek gehienek aire zabalean daude. Gune horiek ziren komunitateko biztanleen topalekuak, gune irekiak, egia eta fantasia nahasten dituzten istorioak herritarrengana helarazteko.

Aire zabaleko guneen erabilera mende askotako ondarea da (Tespisen gurdia, K.a. VI. mendekoa). Gerora agora publiko bihurtu zen agora erritualean sortu zen. Hortaz, kalean aurkitzen du arteak bere bokazioa, tragikoa zein umoretsua.

Zenbait mende geroago, gaur egungo garaietan, eta Fernando Gomezen iritziz (1) (Espainiako Cesar Manrique Fundazioa), guneak aldatu egin dira, eta hiriak, orain, lurralde ehunen barruan sartu dira, ordena ekonomiko eta sozioa neoliberalen oinarrituta. Ordena horren arabera, garapena ekoizpen, banaketa eta kontsumo masiboetan oinarrituta dago. Beraz, lurzorua lehen mailako espekulazio baliabide hutsa da orain. Horren ondorioz, hiriak goitik behera aldatu du hiri egitura; izan ere, eskuarki hiriko balioak eta gizarte funtzioak gauzatzea eragozten duten arkitektura-erakinen artean, gune ireki ezatseginak sortu dira.

Automobila hirigintzaren ardatzeko elementu nagusi bihurtu zen: gune publikoak menderatu eta oinezkoen esparrua txikitzea ekarri du. Hori dela eta, gune irekiak kendu dizkietela sentitzen dute oinezkoek; alegia, beren esperientzia pertsonalak eta zibikoak besteekin elkarbanatzeko, emozio estetikoekin gozatzeko, eta elkarbizitzarako eta gizarte partaidetzarako eskubidea gauzatzeko aukera kendu dietela.

Orduan, kalean –hots, poliseko gune nagusian–, arteak gizabanakoa aintzat hartzen du, eta besteekin berdintzea eta besteengandik bereiztea eragiten du. Orduan, kale antzerkiko kode adierazgarriak Bretchen antzerkira hurbiltzen dira: ez du esparru eszenikorik, ikusleak nahi duten lekuan jartzen dira, eta espazioa etengabe aldatzen da. Horrez gain, kale antzerkiaren proposamenak dena hartzen du barne: aktoreek une oro sortzen dituzten mugimendua, antzezpena eta diseinua.

.....

Francisco Turonek dio, “Fotografías del Teatro de Calle” artikuluan, kale antzerkiaren ezaugarri nagusia gune irekiekiko harremana dela, eta hau gehitzen du: “Kaleak, izatez, antzokia dela ohartzen ez den antzokia izateko joera du. Arte esparrua da, ohiko esparruetatik kanpo formalizatua. Espazioa ez da edukiontzia bat: protagonista bat da. Haren diskurtsoa egunerokotasunetik harago doa eta ez da eduki baten modukoa. Kaxa baten modukoa da, eta haren barruan, sonoritate jakin bat sortzen da. Hiru dimentsioak konkista daitezke: lurra, hormak eta zerua. Gainera, arrisku handiaren meritua du: denek dute espazio horretan aktore izateko eskubidea. Beste mundu batera joateko gonbita egiten zaio ikusleari (kale generoan behar den legez); izan ere, eszenan bertan dago, beste aktore bat da.

Proposamena, probokazioa baino gehiago, oso gonbidapen fisikoa da, ikusleak zuzenean tartean sartzen dituen...”.

Artikulu horretan, Francesco Fiashini eszena zuzendariak adierazten du kale antzerkia antzerkiaren benetako izaeraren erakusgarririk nabarmenena dela: “Kalea antzoki handi bat da, konturatu gabe ahalmen hau duena: lehen ez zegoen gauza bat agerian jartzeko eta, ondoren, gauza hori betiko egonarazteko ahalmena.”

.....

Baina kontuan izan behar da kaleko artistek esku hartzeko espazioa eginda dagoela, arkitekturaren aldetik konponduta dagoela. Artistek lekura egokitu behar dute beren ikuskizuna. Hori dela eta, garrantzitsua da hirigileek eta arkitektoek espazio publikoetako arteari buruz nolako ikuspegia duten.

Jordi Borjak (2), katalan hirigile ezagunak, adierazten du hiria gizartearen antzezpen eta adierazpen kolektiborako oso agertoki handia dela. Hirian, bizitza irudikatzen dugu, eta gure besteekiko jokabidea eta harremanak egituratzen ditugu. Bizipenen agertokia da, eta hartan, milaka pertsonaia eta egoera elkar gurutzatzen dira, eta elkarrengana hurbildu edo elkarrengandik urruntzen dira. Hiria espazio publikoa da, eta identitatearen, elkarrekintzaren eta historiaren lekua. Hiria politikaren, ekonomiaren, lanaren, pilaketaren eta presaren lekua baino gehiago da; izan ere, jolasetarako, irudimenerako eta arterako espazioa ere badira. Hirietako espazio publikoei ematen zaion balio berezituak hiriak eraldatu egin ditzake. Eta premiaz ibiltzeko, lan egiteko edo mobilizatzeko soilik balio ez duen lekua eraiki beharrean, luzatzeko, pentsatzeko eta gozatzeko ere balio duen lekua eraikitzea eragin dezake.

Fernando Gomez Aguilerak arte publikoaren gizarte inplikazioa ezinbestekoa dela adierazten du. Artea ingurunea aldarazteko gai da, bai eta haren oihartzunak jasotzeko eta harekin elkarrizketan aritzeko ere, eta orduan, hiritar izaera itzultzen dio gizabanakoari, eta artea esperientzia kolektibo bihurtzen du. Gomezek trebetasunez aipatzen ditu aurrean ditugun arazoak: “Lasaitasuna eta irisgarritasuna, hiriei argi eta garbi dagozkien bi kategoria, aspaldi izan ziren ordezkaturata, bi kategoria produktiboz: abiaduraz eta mugikortasunez.. Herritarrok malenkoniaz egiaztatzen dugu gizarte harremanak ahalbidetzen zituzten espazio publiko zaharrak, tarteko espazioak eta igarotze espazioak (plazak, kaleak, pasealekuak, etorbideak, parkeak...) disolbatu egin direla, eta haien orde, beste espazio mota batzuk jarri dituztela: leku homogeenak eta estandarizatuak, gizatasunik gabekoak Marc Augéren (3) ez-lekuak, ezaugarri ez-identitatea eta ez-harremana dituztenak), masentzako aisia lekuak edo kontsumo lekuak. Eta leku horiek beste hiri zentralitate batzuk sorrarazi dituzte: merkataritza gune handiak, supermerkatuak, aisia zentroak, aireportuak, geltokiak... Hirietako biztanleen ingurune fisikoa gatazkatsua, trinkoa, hostila, deserosoa, arriskutsua eta despertsonalizatua da, eta paisaiaren aldetik, gogorra, eta egunero, zalantzan jartzen du hiriei eska dakizkiekeen bizigarritasuna eta elkartasuna, ehun demokratiko defizitario baten eta

hirigintzaren aldetik desorekatuta dagoen ekoizpen eredu baten ondorioz; izan ere “ez da ingurumen aldetik iraunkorra, eta sozialki bidegabea da”.

Duela zenbait hamarkadatik hona, hirien zentzua goitik behera aldatu dela ikusten da, Concha D. Moronek (4) adierazi duenez: “gehiago luzatu gabe, onartu egin behar dugu hiriak orain ez direla gizakiek beren behar ugariak asetzeko tresnarik onena, gune ezegonkortuak direla eta egonkortasuna galarazten dutela baizik. Haietan, ohiko tentsioak eta disfuntzioak areagotu egiten dira, bai eta, aldi berean, hurbileko inguruneetako arpilaketa ere. Horrez gain, egungo hiriek izugarritzko eragina dute planeta mailako ingurumen krisian. Hiriak gero eta gehiago aldatzen eta garatzen ari diren garai honetan, prozesuak azkar eta uniformetasunez gertatzen dira: emaitzak berdindu egiten dira, eta kalitate eskaseko edo txarreko hiriko eta hiriarteko paisaiak sortzen dira”.

François Barréren (5) (Georges Pompidou zentroko presidente ohia) iritziz, hirietako espazio publikoen gero eta ahulezia handiagoak bi kausa ditu: alde batetik, alderdi politikoa (polisa), espaziorik ezaren ondorioz, ahultzen ari delako, eta beste batetik, bizikidetzaren proiektuak bera ere krisian dagoelako. Krisi hori eredu indibidualistaren ondorio da, batez ere, eta horrenbestez, biztanleriaren ehuneko handia hiriguneetan ez bizitzaren ondorio. Horrek eguneroko harremanak galarazten ditu eta, horrez gain, eragina du arkitekturaren eta espazio publikoaren pribatizazioan.

Halaber, Barrék azaltzen du artistek hirietan nola dezaketen esku; izan ere, garrantzitsuena ez dira helburuak, haien artean sortzen diren harremanak baizik. Alabaina, hiriek egun ez dituzte harreman horiek sustatzen, hiriak zatikatuta baitaude. Horrenbestez, artisten zeregina mundua konpontzea da, zati zati konpontzea, eta arauetan baino gehiago kontzeptuetan oinarrituta lan egitea. Horrela, ikusizkoaren esklabo bihurtzea eragotziko dute, eta koloreak eta epeltasuna itzuliko dizkiote hiriari. Azken batean, forma landu beharko dute, forma baita hiri batean antzematen den lehen gauza. Artistak espazio kolektiboaren berri eman behar du, identitate komunaren eraikuntza sustatzeko.

Beth Galík (6), beste arkitekto batek, azpimarratzen du arkitektoek eta hirigileek ahalegindu egin beharko luketela hiria artistaren ikuspegitik ikusteko; ez ikuspuntu estetikotik soilik, osotasunaz jabetzeko zentzuan baizik.

Atal horren ondorioz, adierazgarria iruditzen zait Jeff Kelleyk (7) lekuaren eta kokalekuaren artean adierazten dituen aldeak jakinaraztea; izan ere, analogia ariketa bat eginez, kale arteetara zabal ditzakegu aldeak. Hona hemen: “kokalekuak lekuaren ezaugarri fisikoak adierazten ditu: masa, espazioa, argia, iraupena, kokapena eta prozesu materialak. Lekuak, berriz, kokalekuaren dimentsio praktikoak, bertakoak, psikologikoak, sozialak, kulturalak, zeremonialak, etnikoak, ekonomikoak, politikoak eta historikoak adierazten ditu. Kokalekuak esparru fisikoak dira. Lekuek esparru horiek bete eta funtzionarazten dituzte”. Lucy R. Lippardek (8) Kelleyren hurbilketa osatu du: “lekua eta etxea ez dira

sinonimoak, baina lekuek etxe apur bat dute beren barruan. Garai hauen hoztasunean, leku kontzeptuak nolabaiteko epeltasunari eusten dio”.

.....

Baina artisten lekura berriro jotzen badugu, eta gaiaren mamia galdu gabe –hau da, aire zabaleko espazioak antzezpenean duen garrantzia alde batera utzi gabe–, adierazi behar da artistak bere burua errespetarazi behar duela antzezten duen lekuan. Ildo horretan, kontuan izan behar da kalean antzezpenarekin zerikusirik ez duten eta hiriko egunerokotasunaren zati diren hainbat faktorek eragiten dutela, eta kokapen askok lagundu edo eragotz dezaketela hizkuntza. Hori dela eta, azken batean, alde aurretik aztertu behar dira aukeratutako lekuaren alde onak eta alde txarrak; hain zuzen, espazio bakoitzaren ezaugarriak aztertu behar ditugu, espazio hori kalea bera dela, plaza bat dela, lurpeko pasabidea dela, tren bagoi bat dela, balkoi bat dela...

Misael Torres (9) aktorea eta antzerki zuzendaria agora bizia proposatzeaz aritzen da, antzezpena egiteko erabil daitekeen leku bakoitzean gizakiak emozioen bidez komunikatzeko espazio bat sortzeaz. Emozioa eta espazioa, beraz, izugarri garrantzitsuak dira publikoarekiko harremanean. Horrez gain, aktoreek sortzaileak izan behar dutela ere esaten du, eta poesiaren eremuan aritu behar dutela. Aire zabalean funtzio poetikodun espazio bat sortzea da erronka. Espazio horrek gizarte esparrua eta agertokia izan behar du, agora eta aldagela. Keinuaren, irudiaren eta hitzaren arkitektoak; horrelakoak izan behar dute antzerki irekian aritzen direnek.

Juan Carlos Moyano (10) kolonbiar dramaturgoak eta antzerki zuzendariak, “La circunstancia estética del teatro callejero” lanean, zentzumenen eta pentsamenduaren alkimia lortzeaz hitz egiten du; alegia, biziaren eta unibertsoaren bilakaeraren arteko oreka ez-perfektua lortzeaz, irudimenezko espazio bat lortzeaz, funtsean antzerkiarena den denbora paralelo bat lortzeaz.

Valladolideko Antzerki eta Arte Jaialdiko arte zuzendari Javier Martinezen ustez, kalea ez da herri edo hiri bateko eraikinen edo orubeen arteko bidea soilik, ez da leku neutro eta zehaztugabe bat. Edo Joao Brites Portugalgo O Bando konpainiako sortzaile eta zuzendariaren hitzak aipatuz: “ikuskitzen ederreneren, lanik konplexueneren, esperientziarik ausartenen eta mestizaje ezohiko eta kezkarriaren agertokia izan daiteke kalea”.

